

INTERPELAZIOAK BATZORDE EGUNEAN ERANTZUTEAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2018ko apirilaren 16an Zerbitzu Orokorren Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azken hilabeteetan Udaltzaren batzordeetan hainbat gorabehera ematen ari dira: delegatuak berandu iristen dira, ordutegiak gaizki kalkulatu dira, ekimen batzuk erantzunik gabe gelditzen dira Udaltzaren osatzen duten bi alderdien arteko gaizki ulertuengatik eta abar.

Honek guztiak oposizioa osatzen dugun taldeen lana oztopatzen du eta oposizioaren ekimenek duten erantzun eskubidea urratzen du.

Adibidez, otsaileko batzordeetan hiriko gune estalien batzordearen inguruan egindako interpelazioa erantzuteko, Udaltzaren lau egun behar izan zituen. Hau da: asteleheneko batzordean erantzuna idatziz bidaliko zuela adierazi zuen delegatuak, baina ostegunera arte ez zen erantzunik bidali. Kontuan izanda kontrol mozioak aurkezteko epea mugatua dela (astelehenetik ostiralera), ez dugu uste egokia denik lau egun itxaron behar izatea erantzuna jasotzeko.

Hori dela eta, apirileko batzordeetan interpelazioa aurkeztu genuen eta delegatuak erantzun zuen Udaltzaren ustez batzordeak ondo gestionatzen direla eta ekimen guztiak egunean bertan erantzuten direla. Gainera, garrantzia kendu zion interpelazioak batzorde egunean ez erantzuteari eta aipatu zuen berandu erantzuten badira oposizioan gauden taldeok aukera dugula ondorengo hilabeteeko plenoetan kontrol mozioa aurkezteko -hau da, hilabete bat beranduago, gutxienez-.

Udaltzaren Organo Araudiak dioenez, ordea, ekimenak batzordeetan erantzun behar dira. Hau da, apirilaren 16ko batzordean emandako azalpenaren arabera, Udaltzaren zilegiztat eta normalizat jo zuen Udaltzaren Organo Araudia ez betetzea. Oso larria da.

Baina areago, honek guztiak udal taldeen eta herritarren eskubideetara eragiten die. Alde batetik, ezin direlako udal taldeen ekimenak oztopatu eta, bestetik, herritar zein eragileek aurkezten dituzten eskaerak errespetatu behar direlako. Izan ere, donostiarrek edo eragileek udal taldeen bidez aurkezten dituzte haien kezka eta proposamenak eta askotan proposamen horiek epe batzuen logikan egiten dira.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

